BIZIA TA HERIOTZA / HERIOTZA TA BIZIA

Doinua: Bizia sortzen, hazten, garbitzen
Neurria: Lau puntuko handia (ip) / Zortziko handia (hg)



Leire Casamajou Elkegarai
(2002 Sohüta, Xiberoa)

1 Abio* bakotxak beitü etena gure bizitzeak **ere**
destino horren menpe ez denik ez da ezagüt **batere**
eta etena borrokatzen da nahiz jakinik **halere**
hastetik bürü bizi oroen herioak düala **botere**

2 Gogo günüke salborik elki* gure bizi **istorioaz**
alta* kordoka* ari den orekan urteak aitzina **doaz**
ohartü ümen gira beranxka gaüzek züen **balioaz**
eskasiatik hazi inbeaz* mentsetik* sortü **gogoaz**.

3 Zonbaitentako hain llabür eta hain lüze **besteentako**
batak besteari inbea deio* ez beitü haren **gisako**
ederra dena hain eder ote lizatea **denentako**?
Iraünen balü infinitüan ez günüküan hain **gustüko**

4 Nahiz lotsatü*, nahiz beldürtü nahiz gaüetan **iratzarri**
nahiz nigarrak, nahiz ikarak, nahiz zaigün **harrigarri**
biez bat edo batez bi dira txori biga, bakotx **harri**
herioa da egiten düana bizitzea **bizigarri**.

* ***Abio*** = *abiatze, partitze*
elki = *irten*
alta = *baina aldiz*
kordoka = *kolokan, mugitzen*
inbeaz = *gogoz*
mentsetik = *faltatik, gabeziatik*
inbea deio = *gogoa dio*
lotsatü = *beldurtu*